

# UZTURRE

FOR MATXIN LABAYEN

Joxe— Teodoro mutiltxo jaió— berriari

Bai Euskalerrri— bai Europa— bai Aprika— bai Amerika'n (Amerika'n) zer mendi— zer tontot— zer gallur ez dira arkitzen!

Geienak izugarri— arro— goratsuak— geienak aundi— eder— beldurgarri— margotsuak dira ta nola ez alako tokieta'n!

Naiz goratsu— izugarri— ederragoa izan obe... mendigoizaleentzat benetan. Oiek olako mendik bear dituzte— goiko mendigoizaleentzat zeruetaraño irixten diranak— Noski— gertaera— arrisko— arrigarri gosea daukate ta beroa biotza.. ta askotan gorputzak ezin duna bai biotzak egin. Goibea— Goibea— pare gabeko ziltza— sutsua benetan!

Alaxe dira guuzak— mendi aundiak lendabizi— txikiak gero edo beñere ez.— Mendi txikiak —(txikiak)— gaizoak ez dute ezer...

Meditxo umil oietara igotzea ibilket errex utsa da Eta orixen da gure Uztuoreki'n gertatzen dana. Ta mendi txiroa izan arren egizko mendigoizaleentzat— (bestiak dira egizkoak bere tontorrea'n zillar edo urrea dutenak) Tolosar jatorentzat munduko mendi eder— polit— margoteu— zoragarriena da.

Ta ori zergatik? Ba gure gurea dalako— Itxussa dala— zatarra? Gurea da ta errekin aski degu.

Gure Uzturre— ba al dakizute zer dan? Urtea'n— bost edo sei aldiz soñekoz aldatzen dan emakume panpoxa bat— ez panpoxa bakarrik bai ta ere tertiriña (Presumida).

Bestela begiak iriki ta ikusi... Udaberri'n orlegi argi— Udera'n orlegui illun— udazkenea'n ori— urre— gorri— Nega'n txuri more—; zer, oraindik geiago?

Uzturre emakumeentzat— ori da— emakume gazte bat. Eta guretzat? (Arkaitz biurtutako zantzo bat— Arrese aundiarentzat bezela?) ez-baizikan arri biurtutako gizandi on— paketsu eta ez oso aundia!

Eta zergatik milla margozko txori aundi geltsu (geltsu) dizdikorra? ez Obenoski GIZADI. Bai GIZADI.

Eta gizadi ori urte guztia'n or geldirik egon arren — iñora joan gabe— bai berriketa ederrak egiten ditula— bere izkuntz goxo ixillea'n.

Zeneki'n — noreki'n? Ba zeru urdiñ— aize garden (transparente) burne orizko arkaitz— txoritxo alai abeslari— arditxo txuri bildurti— zuaitz zar orlegi— txabola gorri— Erniozabal bere anai txiki ta bai ere gizon ta andreeki'n!

Uzturre lagun on— bikaiñ— sakon— ziurra da notiñentzat. Bañan lagun ori arkitzeko— nai ta nai ez beregan sartu bear degu— antziñeko Grezitar eleiz sakratu batea'n bezela. Barru barrua'n.

PYRENAICA

Joan — joan zaitezte lasai mendi laldera zure Uzturre maiteari arima irikitzera!  
Joan zaar eta gazte!

Arek legortuko ditu zure malkoak— arek berrituko du zure biotz zauritua'n  
itxaropen gozoa— arek piztuko du zure begieta'n beñere iltzen ez dan alaitasuna!

Ta ori bai— beti euskeraz egin Uzturreri— euskera dalako gure mendie'n  
izkuntza! Uzturre jaio denbora'n— oh ura denborak!— euskera zan Euskalerr'i'n  
Jaun eta Jabè!

Ola egiten badezute pozez biotz ikaratuko dira bere ezur zaarrak! Bai egu-  
raldi on— eguzkiaki'n— bai euriaki'n— (Euriaki'n oso illun arkitzen da gure  
Gizadi onutsa) joan beregana!

Ba zoritxarrez ez degu ori dena egiten— ez degu Uzturre maitatzen. Noski  
beti aurrea'n degu ta. Askotan ere esango degu noski asarre asarre: Ortxe ez  
ba zegon obe!

Nai badegu ta nai ez badegu beti aurrea'n izango degu Uzturre gure Tolosa  
zar ta Tolosarrak zaintzen-maitekor—beñere ezer eskaturik gabe.

Tolosar guztiak— jaio berriak— bizi diranak— emen bere sorterria'n bai ta  
ere erbestea'n— itxas urdiñ aldeko uri aundieta'n betiko loa'n daudenak— DENAK  
denak bere babesea'n jαιο geraldako— bere babese laguntzallea'n!

Te egun batia'n— Gure Uzturrez — ez al dirudi antziñeko illobi aundi— izu-  
garri bat— ba liteke jasotzia bere BARRUA'N— betiko Tolosarre'n gorputz ta  
anima k!

